

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

351/2014 Foru Agindua, abuztuaren 4koa, Berantevillako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren espedientea behin betiko onartzen, baldintzak jarrita, eta eteten duena

AURREKARIAK

Lehenengoa. Berantevillako Udalak, 2008ko ekainaren 21eko bilkuran, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra prestatzeko lana esleitzea erabaki zuen, 1992ko uztailaren 15ean behin betiko onartu ziren indarreko Arau Subsidiarioak berrikusteko eta udal antolamendua Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen manuetara egokitzeko. Era berean, 2/2006 Legearen 90.1 artikulua ezarritakoari jarraiki, erabaki zuen artikulua horretan aipatzen diren txostenak Eusko Jaurlaritzako eta Arabako Foru Aldundiko organo eskumendunei eskatzea. Beste alde batetik, udalerriko administrazio batzarrei kontzejuaren jabetzako zerbitzuen antolamendua bideratzeko kontuan hartu beharreko irizpideei eta Plan Orokorra lantzerakoan aintzat hartu beharreko beste edozein irizpideri buruzko txostena eskatu zien.

Bigarrena. 2009ko irailaren 25eko bilkuran, Berantevillako Udalak Plan Orokorren Aurreapena jendaurrean jartzea erabaki zuen, eta horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOren 122 zenbakian, 2009ko urriaren 26an, eta El Correo egunkarian, 2009ko urriaren 30ean; horrez gain, udalerriko administrazio batzarrei eta udalerriko mugakideetako udal administrazioei jakinarazi zitzaizkien eta ediktu taulan ere iragarkia jarri zen.

Jendaurreko informazioaren aldia, 9 iradokizun aurkeztu ziren eta idazketa taldeak horiei buruzko txostena egin zuen. Berantevillako Udalak, 2010eko martxoaren 31ko bilkuran, aurkeztutako iradokizunak onartu eta baztertu egin zituen, aipatutako erabakian jaso den bezala.

Hirugarrena. 2012ko ekainaren 14ko bilkuran, Berantevillako Udalak Plan Orokorren Aurreapena behin-behinean onartzea eta jendaurrean jartzea erabaki zuen, eta horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOren 74 zenbakian, 2012ko ekainaren 27an, eta El Correo egunkarian, 2012ko ekainaren 30ean; horrez gain, udalerriko administrazio batzarrei eta arloko eskumenak zituzten herri administrazioei jakinarazi zitzaizkien eta ediktu taulan ere iragarkia jarri zen.

Jendaurreko informazioaren aldia, 19 alegazio aurkeztu ziren eta idazketa taldeak horiei buruzko txostena egin zuen. Berantevillako Udalak, 2010eko urtarrilaren 10eko bilkuran, aurkeztutako alegazioak onartu eta baztertu egin zituen, idazketa taldeak egindako proposamenarekin bat etorriz.

Laugarrena. 2013ko apirilaren 9ko bilkuran, Berantevillako Udalak espedientea behin-behinean onartzea erabaki zuen, eta aurkeztutako alegazioak onartu edo baztertu zituen, 2013ko urtarrilaren 10eko bilkuran hartutako erabakian jaso zen bezala. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari espedientea bidaltzea agindu zen eta Arabako Foru Aldundiari ingurumenaren gaineko eraginaren behin betiko txostena egiteko eskatu zitzaion. Azkenik, udalerriko administrazio batzordei jakinarazi zitzaizkien erabakia.

Bosgarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak espedientearen txostena egin zuen abenduaren 18ko 5/2013 bilkuran, eta horren inguruan emandako ziurtagirian jaso ziren baldintzak ezarri zituen. Horrez gain, adierazi zuen espedientea ez zitzaizkiola berriro batzordeari aurkeztu behar. Gainera, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, Etxebizitza Sailburuordetzak, Kultur Ondarearen Zuzendaritzak, Uraren Euskal Agentziak (URA)

eta Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak egindako txostenak erantsi ziren.

Seigarrena. Plan Orokorren hirigintza prozeduraren izapideak egin diren aldi berean, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan xedatutakoari jarraiki, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren prozedura ere izapidetu zen, eta 2011ko uztailaren 22an, erreferentziazko agiria egin zen, 2012ko maiatzaren 25ean, aurre-txostena, eta 2012ko azaroaren 14an, behin betiko txostena.

Zazpigarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2014ko otsailaren 17ko sarerra data duen idazki baten bidez, Berantevillako Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorren espedientea bidali zuen behin betiko onar zedin. Agiria aztertu ondoren, 2014ko martxoaren 5ean, dokumentazio osagarria bidaltzeko eskatu zitzaion udalari eta Berantevillako Udalak eskatutakoa bidali zuen 2014ko maiatzaren 5ean.

Zortzigarrena. Era berean, Arabako Hirigintza Batzordeak txostena egin zuen espediente horri buruz uztailaren 31ko 4/2014 bilkuran, Diputatuen Kontseiluak 1999ko abenduaren 14an onartutako 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko.

OINARRIAK

Lehenengoa. Berantevillako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren espediente hau Berantevillako Udal Plangintzari buruzko Arauen eta gaur egunera arte izapidetu diren Arau Subsidiarioen lau xedapen aldaketen Berrikuspena da. Berantevillako udal plangintzari buruzko arauak behin betiko onartu ziren Toki Erakundeekiko Harremanetarako eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren uztailaren 15eko 407/1992 Foru Aginduaren bitartez.

Prozeduraren ikuspuntutik begiratuta, hirigintza izapideak zein ingurumen izapideak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 84. artikuluan eta hurrengoetan nahiz ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan xedatuta dagoenari jarraiki egin dira.

Agiriak egitura zuzena du eta, oro har, indarreko legeriak xedatzen duena betetzen du, hain zuzen ere, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak eta Lurzorua Legearen Testu Bateratua onartu zuen ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretuak xedatutakoa.

Bigarrena. Azalpena eta helburuak.

(A) Azalpena:

Berantevillako Udalak, gutxi gorabehera, 35,77 kilometro koadroko azalera dauka eta 502 biztanle. Arabako Haranak izeneko eskualdean dago, Arabako mendebaldean. Udalerriko mugak ondokoak dira: iparraldean eta ekialdean, Trebiñuko konderrria dago; hegoaldean, Zanbranko udalerrria du mugakide; eta mendebaldean, Burgosko probintzia eta Armiñon eta Erriberabeitia udalerrriak ditu mugakide. Udalerriko hiriburutza Berantevillan dago, Burgosko Miranda de Ebro herritik 7 kilometrora. Biztanleriari erreparatuta, udalerriak entitate txikiko beste zazpi biztanlegune dauzka: Escanzana, Lacervilla, Lacorzanilla, Mijancas, Santa Cruz del Fierro, Santurde eta Tobera.

Berantevilla itsas mailatik 479 metrora dago eta lhuda ibaiaren bi ertzetan hedatzen da, lautada batean. Udalerriko baliabide ekonomiko nagusia nekazaritza da. Industria jarduera Lacorzanillako industrialdean baino ez da garatzen.

Lhuda ibaia udalerritik igarotzen den ur lasterrik emaritsuen da. Lhudak ekialdetik mendebalderantz zeharkatzen du lurraldea, eta udalerriko mendebaldeko mugatik doan Zadorra ibaiarekin bat egiten du. Jugalez ibaiak Berantevillako hegoaldea zeharkatzen du; udalerriko ekialdean, berriz, lhuda ibaiaren ibaiadar bat igarotzen da, Riorrojo ibaia, hain zuzen ere, hego-ekialdetik ipar-mendebalderako norabidean. Aurrekoez gain, zenbait erreka ere igarotzen dira Berantevillatik. Erreka garrantzitsuena San Migel izenekoa dugu, lhuda ibaiaren adarretako bat.

Berantevillako udalerrria Arabako Lurralde Historikoko bide lotune garrantzitsuenetako batetik oso hurbil dago. Lotune horretan, bi autobide nagusi batzen dira: AP-1 eta AP-68. Bigarren autobide horren tarte labur batek Lacorzanilla zeharkatzen du. Bestetik, Gasteiztik Logroñora doan N-124 errepideak iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du udalerrria, mendebaldetik igarota.

Historian zehar, gune estrategikoa izan da Berantevilla, ibilbide zaharren zein Done Jakue bidearen barruan baitago.

1992. urtetik (urte hartan onartu zen indarrean dagoen Udal Plangintza) orain arte, bertan ezarritako aurreikuspen gehienak gauzatu dira, eta udalerriko 8 biztanleguneetan dauden hiri lurzoruko bilbeak finkatu dira.

B) Lurraldearen Antolamendua:

Araba Erdialdeko Lurraldearen Arloko Planak dioenez, Berantevillako Udala dimentsio txiki-kiko herrigunea da. Halako herrietan, egon dauden hiri bilbeak finkatu eta biztanleguneen egungo morfologia itxuraldatzen ez duten tipologiak eta hiriko egiturak lehenetsi behar dira.

Berantevilla AP-1 eta AP-68 autobideen azpiegitura handien eraginpean dago. Beste alde batetik, Zadorra eta Ihuda ibai garrantzitsuei esker, biodibertsitatearen babes bermatuta dago arloko planetan ezarritako babesen bitartez. Azkenen helbururik behinena eremu horretako natur habitatak, fauna eta flora basatiak babestea da.

Berantevillako Udala bi lurralde zatitan banatzen da: B-8, udalerraren erdia hartzen duena mendebaldean, eta B-9, beste erdia hartzen duena ekialdean. Lehen zatiak garrantzi izugarria eta eragin nabarmena dauzka tokiko eremuan; izan ere, fluxuak bideratzen dituzten bi bide nagusi gurutzatzen dira bertan: AP-1 eta AP-68 autobideak. Bestetik, Miranda de Ebro herritik hurbil dagoenez, Berantevilla leku estrategiko garrantzitsua da. Bigarren zatia ezaugarri nagusia egitura fisikoa da. Ildo horretan, ekialdeko eite luzea sendotzen da alboko lurraldeekin dituen harreman berezien bidez: Trebiñuko konderrria eta Arabar Errioxa.

Araba Erdialdeko LAPek ondoko helburuak ezarrita ditu Berantevillako udalerrian garatzeko: lurralde banaketari lotutako bide arku berregituratzea, kokapen estrategikoa bali dezaketen espazio dibertsifikatuak sortzea eta eskari berriak erakartzea, udalerriko ondare balio bereziak indartzea eta esku hartze aktiboa bultzatzea ekoizpen balio handiko nekazaritza lurzoruetan.

Miranda de Ebro udalerritik oso hurbil dagoenez, Berantevillak Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoko eskari berriak har ditzake, batez ere, Burgosko probintziatik, eta Arabako beste leku batzuetatik datozen eskariak ere har ditzake. Horrela, bada, udalerriak lagundu dezake lurraldeko jarduera ekonomikoak dibertsifikatzen eta deszentralizatzen. Horiek horrela, esan behar da Berantevillak Araba Erdialdeko LAPren helburuetako bat betetzen duela, hain zuzen ere, kokapen estrategikoa baliatu ahal duten espazio dibertsifikatuak sortzen ahalegintzea eta eskari berriak erakartzea.

Era berean, LAPen adierazitakoaren arabera, Lacorzanilla ere gune estrategikoa da jarduera ekonomiko berriak garatzeko, Miranda de Ebro udalerritik oso hurbil dagoelako.

Herritarren jarduera ekonomikoa areagotzeko neurriez den bezainbatean, esan beharra dago neurriok funtsezko prozesu ekologikoei eta bizidunen sistemei eutsi beharko dietela; halaber, dibertsitate genetikoa zaindu eta espezieen nahiz ekosistemen ustiapen iraunkorra ziurtatu beharko dute.

Berantevillako udalerriak hartzen duen lurraldea bi ibai zeharkatzen dute, Zadorra eta Ihuda ibaiak. Biak ere Euskadiko Natura Sarean ageri dira Batasunaren Intereseko Leku gisa. Bestetik, Cerro La Solanako erkameztia Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (LAG) jasotzen da Natura Intereseko Eremu gisa sailkatuta. Basoa Escanzana eta Lacervilla artean dago, laborantza intentsiboko eremu batean, San Formerio mendiaren oinaldean eta Ihuda ibaitik hurbil. Berantevillako HAPOk babes bereziko eremutzat sailkatu ditu Cerro La Solanako erkameztia (Natura

Intereseko Eremua) eta Batasunaren Intereseko Lekuak. Horrela, beraz, natur ingurune horien babesa eta zaintza ziurtatu ditu.

C) Helburuak:

Berantevillako HAPO idazteko, beharrezkoa da agiria 1992. urtetik hona Araba Erdialdeko LAPera eta lurzoruaren nahiz hirigintzaren gainean indarrean dagoen legeriara egokitzea. Bestalde, ingurumenari dagokionez, planak ebaluatzeko eskakizunera egokitu beharko da eta arloko araudien arabera moldatu beharko da.

Laburbilduz, Hiri Antolamendurako Plan Orokor honetan proposatzen diren helburu zehatzak ondokoak dira:

1. Udalerriko lurraldea hiri lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzea, Sistema Orokorrek hornitzeko beharrezkoa den lurzoria ere gordeta.

2. Hiri lurzoruaren azalera zehatz-mehatz eta behin betiko zedarritzea, etorkizuneko aurreikuspena eginda eta balizko hazkundera babestuta.

3. Egungo araudia indarrean egon den bitartean, gauzatu diren eraikin berrien, eraispenen eta lokal nahiz higiezinaren erabilera aldaketei buruzko errolda eguneratzea.

4. Lurzoru urbanizaezina babesteko neurriak hartzea.

5. Gaur egungo biztanlegunea finkatzea eta antolatzea, hiri-bilbea zehatzuz, hobetuz eta osatuz, Eusko Jaurlaritzak emandako gidalerro orokorrek eguneratu eta adierazitako baldintzapenei jarraiki.

6. Hiri erabilera antolatu eta arautzea, horiek guztiak bereiziz eta zehatz-mehatz mugatuz.

7. Ekipamenduak hobetzea, sistema orokorrek babestea eta historia, arkitektura eta arkeologiako ondarearen aberastasuna babestea.

8. Onartzen diren eraikuntza tipologiak eta eskatzen diren baldintza estetikoak zehatz-mehatz arautzen dituen araudia taxutzea, tradizioa eta eraikuntzako elementuak zein motak kontuan hartuta eta udal administrazioak ildo horretan dauzkan nahiak entzunda.

9. Bideen trazadura arautzea eta mugatzea, horien erabilgarritasuna hobetzeko, betiere eraikuntza baldintzei eta hirigintzako parametroei egokituta.

10. Udalerrian lehendik dauden azpiegiturak eguneratzea.

(D) Berantevillako HAPOren Lurralde Ereduari buruzko proposamenak:

Aurreko premisak aintzat hartuta, Plan Nagusiak ezartzen duen lurralde ereduak honako proposamen hauek mahairatzen ditu:

1. Udalak hiri lurzoruaren kalitatea kontrolatzea duen hazkundera proposatzea, egungo biztanleriak adierazitako beharrezanean erantzunda.

2. Kartografia eta katastroa eguneratzea eta eraikin berriak jasotzea.

3. Hirigintza eta eraikuntza parametroei dagokienez, irizpideak bateratzea. Horretarako, bide batzuen zabalera aldatzea proposatuko da horien erabilera eta funtzionamendua hobetzeko, eta espaloien, oinezkoentzako bide eta aparkaleku publikoen dimentsionamendu egokia aztertuko da. Era berean, eraikuntzei dagokienez, Errepideen Foru Aginduak ezarritako xedapenak aplikatu beharko dira.

4. Biztanlegune bakoitzaren barruko irudia bateratzea. Horretarako, lurzatietakoa hesietan eta itxituretan erabili beharreko altuerak eta materialak zehatzu beharko dira, lurzatiak daudeneko lurzoruaren kalifikazioaren arabera.

5. Eremu bakoitzean derrigorrezkoa den urbanizazioa zehaztea, hala nola, espaloi, oinezkoentzako ibiltoki, espazio publiko eta abarrei dagokienez.

6. Gutxieneko lurzatiak zehaztea horien zatiketa egin ahal izateko, guztizko eraikigarritasuna mugatuta.

7. Gizarte eta erkidegoko bizitzan parte hartzeko moduak sustatzea, honako araudi honen jarduera esparrutik hasita, eta hiri ingurune, espazio publiko eta komunikazio sistemen irisgarritasuna bermatzea, Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak xedatutakoari jarraiki.

8. Lurzoru urbanizaezinean eraikitzeke aukera kontrolatzea, arloko araei jarraiki.

9. Lurzoru urbanizaezinean, usadiozko baso, nekazaritza eta abeltzaintza alorrekoak ez diren edo lurzoru hori babesten edo hobetzen ez duten erabilera oro debekatzen ahalegintzea.

10. Katalogatutako eraikinen babes maila berrikustea. Horretarako, indarreko araudizat hartuko da Historia eta Arkitektura Ondarearen inbentario berria. Gainera, Berantevillako Ustezko Arkeologia Eremuak zerrendatu eta zedarrituko dira, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuaren irailaren 15eko ebazpenari jarraiki (189 zenbakidun EHAA, 1997ko urriaren 3koa).

11. Indarrean dagoen legeak ezarritakoari men egitea, derrigorrezko lagapenak arautzeko xedez.

12. Eusko Jaurlaritzak onartutako EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Arloko Lurralde Planak ezarritakoari men egitea, derrigorrez gorde beharreko distantziak mugatzeko xedez.

Hirugarrena. Plan orokorra izapidetzearekin batera eta indarrean dauden legeei eta araei jarraiki, egoki izapidetu da ingurumen eraginaren gaineko azterlana, 183/2003 Dekretuarekin bat eginez. Nolanahi ere, gabezia batzuk dauzka eta horiek zuzendu beharko dira.

Laugarrena. Lurzoruaren sailkapenari buruz:

Lurralde plangintzaren eraginpean jarri beharreko espazioak, hau da, urbanizaziotik at utzi eta horien ingurumen balioak zaindu behar direnak, batez ere, udalerriko ekialdean daude, aldapa handiko eremu batean. Hori dela eta, ia-ia laborantzarik ez dago eremu horretan. Berantevillako HAPOk babestu beharreko espazioak aintzat hartu ditu, hots, Zadorra eta lhuda ibaien ertzetan dauden aldeak eta Cerro La Solanako erkameztia. Beraz, planean proposatzen diren hiru lurzoru urbanizagarri berriak egungo hiri bilbearen ondoan ageri dira eta loturarik gabeko hazkunde zentzugabeetatik kanpo geratzen dira.

Agiriak Berantevillako Plangintzaren Arau Subsidiarioetan agertzen ziren hiri lurzuruko eremu gehien-gehienak jasotzen ditu. Aurrekoaz gain, HAPOk 136 etxebizitza gehiago proposatzen ditu udalerriko bizitegi eskaintza areagotzeko helburuz. Mota horretako herrien dinamika eskasa kontuan hartuta, funtsezko estrategia biztanlegune nagusiak indartzea da, kasu honetan, Berantevilla. Hala, plangintzak proposatzen du lehendik dauden osatu gabeko hiri bilbeak amaitu eta finkatzea eta hiri eremuaren nahiz garapen berrien arteko uztarketa bermatzea. Espazio publikoak sendotzea ere xedea da, bereziki, garrantzitsuenak edo adierazgarrienak direnak. Beste alde batetik, egungo biztanlegunearen morfologia desitxuratzen ez duten egiturak eta tipologiak erabili beharko dira.

Arabako herrixkentangoko eraikigarritasun, zenbaketa eta bizitegi dentsitatea direla eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Antolamendurako Batzordeko presidente andrearen 2008ko martxoaren 6ko Zirkularrarekin bat etorri eta Arabako Lurralde Plan Partzialek diotena aintzat hartuz, biztanlegune txikien bizitegi garapenaren gehieneko ahalmena "ehuneko 100 da, antolamendu orokorraren berrikuspenera egiten den unean edo Lurralde Plan Partzialera egokitzen den unean zeuden etxebizitzaren kopurua kontuan hartuta kalkulatuta.

Arestian azaldutako irizpenen arabera, planean jasotako proposamenak 136 etxebizitza dakartza guztira. Etxebizitza horietatik, 64 Berantevillan daude eta gainerako 72 udalerriko gainerako biztanleguneetan daude.

Jarduera ekonomikoak garatzeko lurzoruari buruzko proposamenak direla eta, agiriak bi industriagune berri proposatzen ditu, Lacorzanillan lehendik dagoen lurzoruari gehituta. Proposamenak 13,5 ha-ko gehikuntza dakar.

(A) Hiri lurzoruaren arauzko izaerari dagokionez. Preskripzio hori 2/2006 Legearen 10 eta 11. artikuluetan arautzen da. Lege horretan, hiri lurzoruaren sailkapenaren ezaugarri nagusiari erreparatuta, esan behar dugu hiri lurzoruak oinarritzko azpiegiturak badituztela, hala nola, ur hornidura, saneamendua, ibilgailu sarbidea eta argiteria publikoa.

Berantevillako HAPOren kasuari gagozkiola, indarrean dauden arau subsidiarioak, plan orokorraren agirian aurkeztutako azpiegituren planoak eta Arabako Foru Aldundiak 2005. urtean egindako sareen planoak berrikusi ondoren, egiaztatu da lurzoru sailkatzeko planoetan hiri lurzoru gisa proposatzen diren lurzoru batzuek ez dituztela betetzen Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritako gutxieneko betekizunak eta, hortaz, gai hori zuzendu beharko da.

B) Urak hartzeko arriskuari dagokionez, udalerraren historian uholdeak gertatu direla kontuan hartuta, plangintza taxutzeko orduan, Uholdeak prebenitzeko Plan Integralean (UPPI) eta hura eguneratzeko azterlanetan jasotako orbanak aintzat hartu beharko dira. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak egindako "Bilboko eta Gasteizko metropolialdeak hornitzeko alternatiben azterlanean" eta EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Arloko Lurralde Planean (Mediterraneoko isurialdea) ezarritakoak ere kontuan hartu beharko dira.

Herri administrazioak bermatu behar du garapen berriak seguruak direla eta ez dutela uholde arriskurik, eta uholde lautadak eta urak gainezka egin dezakeen ertzak euren berezko helbururako erabiltzen direla, eraginkortasunez funtzionatzen jarraitzen dutela eta jarduketa desgokietatik babestuta daudela.

EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Arloko Lurralde Planean agertzen dira uholde lautada geomorfologikoak. Eusko Jaurlaritzak egindako "Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen ziozko Larrialdiko Plan Bereziaren Bloke Teknikoa" deritzon proiektutik atera dira horiek. Uholde lautadak, oro har, uholdeak maiztasun handiz paira ditzaketen eremuak dira, ibai eta ur-lasterren aldamenean kokatuta baitaude. Badira, beraz, urak erraz har ditzakeen aldeak eta arrisku handia sortzen diete garapen jardueri, eremu horien urrakortasuna arazoizko mailatik gorakoa bada. Oro har esanda, uholde lautadetatik hurbil dauden herriguneak arriskutsuak dira biztanleentzat eta bertan dauden ondasun materialentzat; izan ere, ibaien uhaldi edo ur goraldietan, lautadak urez bete daitezke eta, uhaldiaren garrantziaren arabera, kalte handiak eragin.

C) Hiri lurzoruaren desklasifikazioa. Hurrengo orrietan biztanleguneka aztertuko ditugu eremuak eta hiri lurzoruaren sailkapena kendu beharrekoak aipatuko ditugu, uholdeen ziozko hirigintza legeria betetzen ez dutelako:

BERANTEVILLA

Berantevillako hirigunea hiribilduaren egitura laukizuzenak eta bost kale nagusiz osatutako antolaerak zehazten dute. Historian zehar, hirigune historiko legez finkatu da, jatorrizko bilbe organiko baten barruan kokaturik dagoela eta bilbe horren mugak argiro antzematen direla. Nabarmendu behar dugu gutxi gorabehera 30.000 metro koadroko azalera duen BE.01 izendatutako eremu horren antolamendu xehatua Berantevillako Birgaitze Integratuaren Plan Berezian jasotzen dela. Planaren helburu nagusia lehendik dagoen bizitegi bilbea finkatu eta birgaitzea da.

Ertzetako aldeak ere hirigunearen barrukoak dira; hala ere, horien ezaugarriak ohikoagoak dira zabalguneetan (batez ere, Eras kalearen alboko aldea eta mugatutako sektorearen ekialdeko zabalkuntza). Altxatu berriko eraikinak ditugu lehen eremuan eta pabilioiak, biltegiak eta antzekoak bigarren eremuan (ekialdeko zabalkuntza), hiri bilbearen berezko ezaugarriak gabe. Bestetik, hiri bilbearen iparraldeko aldean, sustapen publikoko etxebizitzak eraiki dira.

EREMUA	AZALERA (M ²)	ETXEBIZITZA BERRIEN GEHIENAKO KOPURUA	AZALPENA
BE.01	30.812,33		Hirigune zaharra. Hirigune historikoa (BEPB)
BE.02	39.903,98		Eraikuntza garapen txikiko bizitegi eremua. Hiri lurzorua indarreko antolamenduan
BE.03	6.008,79	0	Eraikuntza garapen txikiko bizitegi eremua. Mendebaldea
BE.04	13.263,86	28 (22 badaude)	Eraikuntza garapen txikiko bizitegi eremua. Iparraldea
BE.05	4.713,84	X	UHOLDE ARRISKUA
BE.06	1.777,12	2	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Hego-ekialdea
BE.07	9.782,13	X	EZ DA HIRI LURZORUA
BE.08	2.606,47	X	EZ DA HIRI LURZORUA (ZATI BATEZ)
BE.09	5.232,44	3 (2 badaude)	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Hego-mendebaldea
BE.10	4.409,14	X	UHOLDE ARRISKUA (ZATI BATEZ)
BE.11	4.361,07	X	UHOLDE ARRISKUA
BE.12	5.425,04	X	UHOLDE ARRISKUA
BE.13	9.360,68	X	UHOLDE ARRISKUA
BE.14	12.537,22	16	Lurzoru urbanizagarria. Garapen oso txikiko bizitegi eremua. Hego-mendebaldea

URA, Uraren Euskal Agentziak baldintza lotesle gisa ezarri du BE.05, BE.11, BE.12 eta BE.13 eremuetan garapenik ezin egitea, ibaitik oso hurbil daudenez gero, uholdea pairatzeko arrisku handia dutelako. Era berean, nolana ere den, BE.05 eta BE.13 eremuetan 26 metroko distantzia gorde behar da lhuda ibaiaren ibilgutik, eraikuntzei dagokienez, eta 11 metroko distantzia, urbanizazioari dagokionez.

Beste alde batetik, URA erakundearen abenduaren 16ko txostenarekin bat etorritik, etorkizun hurbilean BE.11, BE.12 eta BE.13 eremuak sailkatzeko aukera egongo litzateke, Berantevillako BE.13 eremutik ibaian behera dagoen zubiak sorrarazten duen "oztopo hidraulikoa" kenduz gero, betiere eraikuntza jarduerak kota egokian garatuko balira, 500 urteko itzulera denboran uholdea pairatzeko arriskutik libratzeko.

Berantevillako BE.10 sektoreari dagokionez, hirigintza garapena 100 urteko itzulera denborako uhaldea zedarrizten duen lerroraino atzeratu behar da. Lerro horretatik hara egiten den edozein hirigintza garapen 500 urteko itzulera denborako uhaldiari aurre egiten dion kota egokian gauzatu beharko da.

ESCANZANA

Escanzana herrixka txikia da, Berantevillako ekialdean. Elizaren inguruan dagoen baserri multzo batek osatzen du herrixka, hiri egitura garbirik gabe.

EREMUA	AZALERA (M ²)	ETXEBIZITZA BERRIEN GEHIENAKO KOPURUA	AZALPENA
ES.01	17.224,02		Landa izaerako herrigune zaharra
ES.02	4.428,06	4	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Hegoaldea

LACERVILLA

Herriguneak dituen bi sarbideen arteko bizkar batean hedatzen da Lacervilla, udalerriko iparraldean Eraikin metatuko tipologia da nagusi bertan.

EREMUA	AZALERA (M ²)	ETXEBIZITZA BERRIEN GEHIENAKO KOPURUA	AZALPENA
LC.01	28.266,11		Landa izaerako herrigune zaharra
LC.02	1.750,13		Landa izaerako herrigune zaharra. Lurzoru urbanizazinezko zati txiki bat erantsi zaio unitateari
LC.03	2.216,23	X	EZ DA HIRI LURZORUA
LC.04	1.180,10	X	EZ DA HIRI LURZORUA

EREMUA	AZALERA (M ²)	ETXEBIZITZA BERRIEN GEHIENEO KOPURUA	AZALPENA
LC.05	2.064,08	2	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Ekialdea
LC.06	1.290,48	1	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Hego-ekialdea
LC.07	2.413,53	2	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Hego-mendebaldea
LC.08	3.465,85	X	EZ DA HIRI LURZORUA
LC.09	3.737,36	X	EZ DA HIRI LURZORUA
LC.10	2.242,92	2	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Ipar-mendebaldea

Adierazitako lurzoruak ezin dira hiri lurzorutzat sailkatu; hala eta guztiz ere, Berantevillako Udalak proposamen berria egin ahal izango du urbanizagarritzat sailkatzeko.

LACORZANILLA

Lacorzanilla N-124 errepidearen ondoan dago eta eraikuntza gutxi ageri da bertan. Lacorzanillako herrigunean sortutako komunikazio lotunearekin zerikusia duten eraikuntzak besterik ez daude.

EREMUA	AZALERA (M ²)	ETXEBIZITZA BERRIEN GEHIENEO KOPURUA	AZALPENA
LZ.01	16.020,67		Landa izaerako herrigune zaharra
LZ.02	199.983,01		Industria arrunta. Orain, ia-ia eremu osoko lurzorua hiri lurzorutzat sailkatuta dago.
LZ.03	75.798,89		Industria arrunta
LZ.04	69.546,57		ARRISKU UHOLDEA ZATI BATEZ
LZ.05	66.170,43		ARRISKU UHOLDEA ZATI BATEZ
LZ.06	29.228,27		Industria arrunta

Lacorzanillako lurzoru urbanizagarri dagokienez:

1. Lacorzanillako LZ.02 eta LZ.03 eremuak 100 urteko denbora itzulerako uhaldea zedarrizten duen lerroraino atzeratu behar dira. Lerro horretatik hara egiten den edozein hirigintza garapen 500 urteko itzulera denborako uhaldiari aurre egiten dion kota egokian gauzatu beharko da.

2. Lacorzanillako LZ.04 eta LZ.05 eremuak 100 urteko denbora itzulerako uhaldea zedarrizten duen lerroraino atzeratu behar dira. Lerro horretatik hara egiten den edozein hirigintza garapen 500 urteko itzulera denborako uhaldiari aurre egiten dion kota egokian gauzatu beharko da. Nolanahi ere, Zadorra ibaiaren ibilguarekiko gutxieneko distantzia gorde beharko da, hots, 35 metro eraikuntza berriei dagokienez eta 20 metro urbanizazioari dagokionez.

MIJANCAS

Herriguneko eraikuntzak hegal batean biltzen dira, Riorrojo ibaiaren goi ibilgura doan bide zaharraren inguruan. Eraikuntzak inolako antolaerarik gabe banatzen dira bidearen alde bietan. Eraikuntzei atxikita bloke osagarriak, baratzeak eta beste agertzen dira eta eraikin multzo mailakatuak osatzen dituzte.

EREMUA	AZALERA (M ²)	ETXEBIZITZA BERRIEN GEHIENEO KOPURUA	AZALPENA
MI.01	43.123,53		Landa izaerako herrigune zaharra
MI.02	2.251,03	2	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Mendebaldea
MI.03	3.453,18	3	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Iparraldea
MI.04	2.773,71	2	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Iparraldea
MI.05	2.765,32	2	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Ekialdea
MI.06	1.924,73	2	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Hegoaldea
MI.07	1.290,57	1	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Ekialdea

MI.01, MI.04 eta MI.05 eremuen araudiari dagokionez, uholde arriskuari aurre egiteko ezinbesteko justifikazio kartografikoa jaso beharko da, indarrean dagoen EAEko Ibai eta Erreken Antolamendurako LAPen ezarrita dagoen berariazko araudia zuzen aplikatzeko helburuz. Era berean, MI.04 eremuak 15 metroko distantzia gorde beharko du Riorrojo ibaiaren ibilgutik eraikuntza berriei dagokienez eta 5 metroko distantzia urbanizazioari dagokionez.

SANTA CRUZ DEL FIERRO

Berantevillatik bereizitako herrigunea da, fisikoki Zanbrana udalerrian txertatuta. Santa Cruz del Fierroko lehen eraikuntzak bizkarraren ipar-mendebaldeko hegalean biltzen dira, bertako elizaren inguruan.

Geroago, ekialdeko hegala okupatzen joan zen hainbat mailatan. Hala, hango bloke irregularrak hiru kale antzeko eta paraleloetan antolatzen dira, nagusiki, iparraldetik mendebalderako norabidean.

EREMUA	AZALERA (M ²)	ETXEBIZITZA BERRIEN GEHIENEO KOPURUA	AZALPENA
SF.01	30.394,77		Landa izaerako herrigune zaharra
SF.02	1.891,42	2	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Hegoaldea
SF.03	5.767,52	X	EZ DA HIRI LURZORUA
SF.04	6.448,74	6	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Hego-mendebaldea

SANTURDE

Eraikuntzek oinarrizko hiri bilbe trinkoa osatzen dute; elizaren aurreko plazatxoan elkartzen diren bi bide laburrek osatzen dute bilbea. Eliza erdigunea da, bolumen handikoa izateaz gain, herriko egitura antolatu eta elementu aglutinatzailea delako. Hiri bilbearen gainerakoak bat egiten du Tobera eta Mijancas guneetara doazen bideekin.

EREMUA	AZALERA (M ²)	ETXEBIZITZA BERRIEN GEHIENEO KOPURUA	AZALPENA
SA.01	26.988,39		Landa izaerako herrigune zaharra
SA.02	2.954,79	X	EZ DA HIRI LURZORUA
SA.03	1.905,15	X	EZ DA HIRI LURZORUA
SA.04	9.406,79	X	EZ DA HIRI LURZORUA
SA.05	SG	X	EZ DA HIRI LURZORUA

Kasu honetan, Santurden proposaturiko garapen berri guztiak desklasifikatu egin dira, hiri lurzoruaren sailkapena bermatzen duten zerbitzu guztiak ez daudelako. SA.04 eremuaren araudiari dagokionez, uholde arriskuari aurre egiteko ezinbesteko justifikazio kartografikoa jaso beharko da, indarrean dagoen EAEko Ibai eta Erreken Antolamendurako LAPen ezarrita dagoen berariazko araudia zuzen aplikatzeko helburuz.

TOBERA

Herrigunea osatzen duten eraikuntzak bilduta eta lerrokatuta daude, herrigunea ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duen bide zaharraren trazaduraren arabera. Etxeak ingurune horretako orografian finkatzeko, eraikinen altxaerak altuera ezberdinetan daude eta sarbideak ere hainbat mailatan agertzen dira.

EREMUA	AZALERA (M ²)	ETXEBIZITZA BERRIEN GEHIENEO KOPURUA	AZALPENA
TO.01	18.494,11	0	Landa izaerako herrigune zaharra. Unitate horri lurzoru urbanizaezineko zati txiki bat erantsi zaio.
TO.02	1.585,85	1	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Iparraldea
TO.03	1.651,02	1	Eraikuntza garapen oso txikiko bizitegi eremua. Iparraldea

Bosgarrena. Sistema orokorrak.

A) P-1 planoetan, Berantevillako guneeetatik igarotzen diren foru errepideak sistema orokor gisa sailkatu behar dira, hamabigarren oinarrian esaten denari jarraiki.

B) Lacorzanillan proposatutako Hondakin Uren Araztegiari dagokionez, 100 urteko itzulera denborako uhaldia zedarritzen duen lerroraino atzeratu beharko da azpiegitura. Lerro horretatik hara egiten den edozein hirigintza garapen 500 urteko itzulera denborako uhaldiari aurre egiten dion kota egokian gauzatu beharko da.

Era berean, adierazi behar dugu Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak gomendatzen duela Sistema Orokortzat sailkatutako eremuaren barruko kokapen zehatzak ekidin ditzala ongi zaindutako eta/edo berreskuratutako eremuak.

HUArri dagokionez, uholde arriskuen gaineko kartografiari erreparatuta, arloko organo eskumendunek ezarri dituzten aurretiazko baldintzek balio gabetu ditzakete Plan Orokorrean proposatutako kokapena; hortaz, auzi hori planaren testu bateratuan konpondu beharko da.

Seigarrena. LUEren zonakatzea eta kalifikazio orokorra.

Berantevillako HAPOak lurzoru urbanizaezina sailkatzea eta zonakatzea proposatzen du, Arabako Hirigintza Plangintza Normalizatzeko Sistemaren ezarritakoaren arabera, P-1 plano bilduman eta P-1.1. planoaren "gainjarritako baldintzatzaileetan" islatutakoari jarraiki. Halaber, lurzoru urbanizaezina dela eta, lurzoru mota horren kategorien arabera berariazko araudia ezarri da seigarren tituluan. Bertan, kalifikazio orokorarentzat zuzenean baimendu daitezkeen eraikuntza erabileren eta jardueren mugak eta gainjarritako baldintzatzaileen eremuetan erabilerei ezarritako bestelako mugak arautzen dira.

Ezarritako zonakatzea zuzentzat jotzen da eta Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroetara behar bezala egokituta dagoela esan behar da. Hala, indarreko planak baino modu zorrotzagoan babesten ditu esparru batzuk, eta babes bereziko eremutzat sailkatu ditu Cerro La Solanako erkameztia (Natur Intereseko Eremua) eta Batasunaren Intereseko Lekuak, natur ingurune horien babesa eta zaintza bermaturik.

Babes bereziko J1 eremuetan badaude LAGek eta Araba Erdialdeko LPPk lurralde mailan babestutako lurzoruak. Bestetik, P.1.1. planoan adierazten diren gainjarritako baldintzatzaileek eta gehigarriek eremu urrakorrek jasotzen dituzte, hala nola, akuiferoak, alde higagarriak, ustezko arkeologia eremuak, ondasun kalifikatu eta inbentariatuak eta uholde arriskua duten eremuak. Hala ere, azken baldintza berrikusi egin beharko da laugarren oinarrian ezarri denari jarraiki.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, 2013ko abenduaren 18an, ziurtatu du araudiak Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa bete behar dela, nekazaritza edo abeltzaintzako ustiategi ekonomiko bati lotutako oin berriko etxebizitzak eraikitzeke egintzen gaineko dokumentazioa eta baimenak emateko baldintzak betetzen direla berma dadin.

B) EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPari dagokionez:

Planak berariazko araudian zehaztu beharko du ondoko distantziak betetzen direla, eremuen arabera zehaztuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak ezarritakoari jarraiki:

· LZ.04 industrialdea: gutxieneko distantzia Zadorra ibaiaren ibilgutik abiatuta: 35 metro eraikuntza berrientzat eta 20 metro urbanizazioarentzat.

· BE.05 eta BE.13 eremuak: gutxieneko distantzia Ihuda ibaiaren ibilgutik abiatuta: 26 metro eraikuntza berrientzat eta 11 metro urbanizazioarentzat.

· MI.04 eremua: gutxieneko distantzia Riorrojo ibaiaren ibilgutik abiatuta: 15 metro eraikuntza berrientzat eta 5 metro urbanizazioarentzat.

C) Espedientean egin behar izan den Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren (IEBE) prozedurari dagokionez, prozedura hori arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren 183/2003 Dekretuaren arabera, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko behin betiko txostenean, 2001eko apirilaren 15ekoan, alderdi batzuen balorazio positiboa eta beste batzuen balorazio negatiboa edo akastuna egin du, eta azken horiek ondoren argitu dira:

Gainerako irizpenei dagokienez, ondokoa adierazi behar da:

1. Gomendagarria da "Trompal de Peña Hueca" izeneko esparrua toki izaerako babes bereziko eremuan sartzea.

2. HAPOren araudiak argiro jaso beharko du Arabako Lurralde Historikoko hiru ibilbide berde badaudela.

3. IEBEren gaineko behin betiko txostenaren 4.2.1 atalari dagokionez, ez da beharrezkoa atal hori jasotzea, lurzoru urbanizaezineko eraikuntza erabileren kontrola arloko organoen eskumena baita.

4. 4.3 atalari dagokionez, bizitegi hazkundera nabarmen aldatuko da eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Antolamendurako Batzordearen aldeko irizpena jaso du.

5. Uholde arriskua duten lurzoruei dagokienez, lurzoru mota horiek desklasifikatu egingo dira, Hirigintza Zerbitzuak egindako txostenean nahiz Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Eraginari buruzko behin betiko txostenean proposatzen denari jarraiki.

Zazpigarrena. Antolamendu xehatuko esparruei dagokienez.

Laugarren oinarrian adierazitakoarekin bat etorritik, planoetan zuzendu beharko dira edo, hala badagokio, kendu beharko dira, hiri lurzorutzat sailkatutako eremuak Berantevillan, Lacervillan, Santa Cruz del Fierron, Santurden eta Lacorzanillan, lehen aipatu denari jarraiki.

Zortzigarrena. Zonakatze orokorra hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian.

P3 plano sortan zehatz-mehatz adierazita dago zonakatzea, eta argi bereizten dira zona pribatuak, publikoak eta sistema orokorrak, baita beraien erabilerak eta beharrianak ere, bizitegikoak, hirugarren sektorekoak, industrialak, ekipamenduak, espazio libreak, bideak, hiri zerbitzuak eta abar. Aurreko oinarrietan aipatutako eremuak aldatu beharko dira.

Bederatzigarrena. Zonakatze xehatua.

Agiriaren P4 plano sortan zehaztuta dago. Antolamendu xehatuko eremuak berriro zehaztu beharko dira eta lurzoruaren sailkapenaren afektazioak eta sailkapen orokorra zuzendu egin beharko dira, aurreko ataletan adierazi den bezala.

Plan Orokorrak era xehatuan antolatu dituen finkatu gabeko hiri lurzoruko eremuak zuzendu egin beharko dira, ereduak araudian esleitutako subzonifikazio bakoitzari dagozkion hirigintza eta eraikuntza parametroak betetzeko helburuz, hala nola, lurzatiaren aurrealdea, berdeguneak, bideak...

Hamargarrena. Hirigintza kudeaketari dagokionez.

Agiri honetan, hirigintza araudiaren arau zehaztetan kokatutako eremuei dagozkien fitxek garapen plangintza lantzeko eta onartzeko eta lurzoruaren programatzeko epeak ezartzen dituzte.

Halaber, eremu bakoitzaren fitxetan, argi eta garbi zehazten dira gaineratzen diren sistema orokorrak bateratutako jardueraren barruan, lurzoruaren lortze aldera. Dagoeneko txertatuta daudenak ere aipatzen dira, horiek lortu, burutu eta kostua bereganatze aldera.

Memoriaren D agiriak ekonomia eta finantza bideragarritasunaren eta ekonomia jasangarritasunaren azterketa zehatza aurkeztu du. Bertan, zuzkidura jarduerak, bateratutako jarduerak eta atxikitako sistema orokorrak zehazten dira. Kasu horretan, azterketa osatu egin beharko

da sistema orokorren kostua eta finantzaketa egoki bidezkotuz. Era berean, sistema orokorren mantentze kostua adierazi beharko da.

Hirigintza kudeaketari buruzko informazioa Norplanek argitaratutako P6 plano sortan islatzen da. Horregatik guztiagatik, ebazten da agiriak behar bezala jasotzen dituela hirigintza kudeaketari buruzko alderdi guztiak. Hala ere, eragindako eremuetako lurzoruen sailkapen berriari dagokion kudeaketaren arabera egokitu beharko dira planoak.

Hamaikagarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari dagokionez.

Lurralde Antolamendurako Batzordeak HAPOnen aldeko txostena eman du, oro har, eta proposatutako lurralde ereduaren aldeko balioespina eman du. Hainbat arlotan, txostenaren izaera loteslea izan da eta ebazpen honek aintzat hartu ditu. Hona hemen arlo horien laburpena:

(A) Etxebizitza kopurua: EHLABk Berantevillako HAPOnen espedientearen aldeko txostena eman zuen, etxebizitza eskaintza lurralde eta sektore plangintzan ezarritako kopuruarekin bat baitator.

Berantevillako hirigunean 64 etxebizitza berri proposatzen dira, LAGetan eta Araba Erdialdeko LPPean ageri diren irizpideekin bat etorritz. Escanzana, Lacervilla, Lacorzanilla, Mijancas, Santa Cruz del Fierro, Santurde eta Tobera herriguneetan, bizitegi hazkundera gaur egun herrigune bakoitzean egon dauden etxebizitza kopurua baino txikiagoa da, eta gainera, hazkundera herrigune bakoitzaren bilbepi jarraiki proposatzen dira.

Era berean, proposatutako eraikuntzek Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 77. artikulua ezarritako xedapenak betetzen dituzte.

B) Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren zenbaketa: EHLABk jarduera ekonomikoak garatzeko lurzoruaren zenbaketa aldeko txostena eman zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak ezarritakoari jarraiki. Hala eta guztiz ere, zuzendu egin beharko da Lacorzani-llako industrialdeen inguruko dokumentazio grafikoaren eta araudi zehatzaren artean dagoen kontraesana.

C) Azpiegiturak eta zerbitzuak.

Horren aldeko txostena egin da. Aurreikusitako sare berriek bereizleak izan beharko dute.

(D) Ingurune fisikoa.

1. LZ-04, BE-15 eta BE-05 eremuen onarpena Eten egin beharko da, harik eta eremu horiek Natura 2000 (Zadorra Ibaia BIL eta Ihuda Ibaia BIL) esparruetan izan dezaketen eragina behar bezala ebaluatu arte.

2. Aurrekoa araudiaren 1.6.1.6. eta 1.6.1.7. artikuluetan adierazi beharko da, sortu berriko abeltzaintza ustiatzei dagokienez. Halakoek ondokoak bete beharko dituzte: irailaren 22ko 515/2009 Dekretua, Abeltzaintzako ustiatzeietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituenak, eta 165/1999 Dekretua, martxoaren 9koa, Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko Lege Orokorrean jasotzen den jarduerarako lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duena.

(E) LAGen, Lurralde Plan Partzialen eta Arabako Erdialdeko LPParen afektazioak.

Horren aldeko txostena egin da.

F) Ekipamenduak eta espazio libreak.

Horren aldeko txostena egin da.

G) Uholde arriskua eta urak.

EHLABk izaera lotesleko betekizun batzuk ezarri ditu, URA, Uraren Euskal Agentziaren 2013ko abenduaren 16ko txostenarekin bat etorritz.

1. Berantevillako BE.05, BE.11, BE.12 eta BE.13 eremuak ezin dira proposatu moduan garatu gaur egun duten uholde arriskua aintzat hartuta.

2. Berantevillako BE.10 eremua eta Lacorzanillako LZ.04 eta LZ.05 eremuak 100 urteko denbora itzulera uhaldea zedarritzen duen lerroraino atzeratu behar dira.

3. Lacorzanillan proposatutako Hondakin Uren Araztegiari dagokionez, 100 urteko itzulera denborako uhaldea zedarritzen duen lerroraino atzeratu beharko da azpiegitura.

Hamabigarrena. Arabako Foru Aldundiko errepideen bide lerroei, sestrei eta afektazioei dagokienez, aintzat hartu beharko da Herri Lan Sailaren 2014ko uztailaren 28ko txostena:

1. Berantevillako saihebidia oraindik ere ez da eraiki; beraz, azpiegitura hori gauzatzen ez den artean, egungo A-3122 errepidea, Berantevillatik igarotzen den tartean, errepideen foru sarekoa da eta Arabako Lurralde Historikoko Errepideen ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauan eta Arabako Errepideen Plan Integralean (AEPI) horri buruz ezarritakoei men egin beharko zaie.

Beraz, udalerrria kalifikatzeko planoetan, errepideak zeharkatzen dituen herriguneetan, hain zuzen ere, Berantevillan, Mijancasen eta Santa Cruz del Fierron, errepidearen hiriko tartea Errepideen Sistema Orokortzat hartu behar da.

2. Azpiegitura Orokorren eta Gainjarritako Baldintzatzaile Gehigarrien planoetan, udalaren jabetzako errepideen inguruan eta N-124 errepidean eta Berantevillako saihebidetan proiektatu diren trazatu berrien inguruan, jabari publiko, zortasun eta afektazio aldean multzoak osatutako lur zerrenda irudikatu da, Arabako Lurralde Historikoko Errepideen 20/1990 Foru Arauaren 38, 39 eta 40. artikuluek xedatutakoari jarraiki. Akats batzuk antzeman dira lerro horietan eta zuzendu egin beharko dira, Arabako Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailak emandako lerroen arabera.

3. Lurzorua sailkatzeko planoetan eta antolamenduko eremuetan, "Egiturazko esku hartzerako eremuen muga" izeneko alde batzuk mugatu dira. Alde horiek zuzendu beharko dira, Arabako Foru Aldundiko Errepide Sailak emandako irizpideei jarraiki.

4. "Lerrokadurak eta sestrak" izeneko planoetan, Arabako Errepideen Plan Integralean (AEPI) ageri diren erreduzko sekzioak gehitu beharko dira hiri barruko bideguneetan eta zeharbideetan, lurzoruaren sailkapenaren arabera, finkatu gabeko hiri lurzoru nahiz lurzoru urbanizagarriari dagokienez.

5. Mijancasko hiri lurzoruko eta lurzoru urbanizagarriko zonakatzeko globalari buruzko planoetan, E11-01 izeneko zerrenda Sistema Orokor gisa sailkatu da, baina espaloiak aintzat hartzen ditu; alabaina, Arabako Errepideen Plan Integralak adierazten duen bezala, espaloiek Tokiko Sistemaren barruan egon behar dute eta, beraz, horrela irudikatu beharko dira. Zonakatzeko zehatuko planoetan, errepideak eta errepidearen ondoko berdeguneek osatutako Sistema Orokorra eta espaloiek osatzen duten Tokiko Sistema bereizi behar dira, AEPIIn agertzen diren sekzioen arabera.

Lerrokadura eta sestren planoetan, espaloiak zuzendu beharko dira; izan ere, "Komunikazioen Sistema Orokorra, foru sarearen bide lerrokadura" deritzonaren lerrokadurek mugatutako zerrendaren barruan sartu dira, baina "Tokiko Sistema, udal sarearen lerrokadura" deritzonaren barruan txertatu behar dira. Era berean, berdeguneak "Tokiko Sistema, udal sarearen lerrokadura" deritzonaren barruan jaso dira, baina "Komunikazioen Sistema Orokorra, foru sarearen bide lerrokadura" deritzonaren barruan jaso beharko liriateke. Beraz, akats hori ere zuzendu beharko da.

Barruko bideetatik errepidera doazen sarbideen biraketa erradioak, gutxienez, 8 metrokoa izan behar du.

6. Santa Cruz del Fierroko hiri lurzoruko eta lurzoru urbanizagarriko zonakatze globalari buruzko planoetan, E11-01 izeneko zerrenda Sistema Orokor gisa sailkatu da, baina espaloiak aintzat hartzen ditu; alabaina, Arabako Errepideen Plan Integralak adierazten duen bezala, espaloiek Tokiko Sistemaren barruan egon behar dute eta, beraz, horrela irudikatu beharko dira.

Zonakatze xehatuko planoetan, errepideak eta errepidearen ondoko berdeguneek osatutako Sistema Orokorra eta espaloiek osatzen duten Tokiko Sistema bereizi behar dira, AEPIIn agertzen diren sekzioen arabera.

Lerrokadura eta sestren planoetan, espaloiak gaizki jasota daude eta zuzendu beharko dira; izan ere, "Komunikazioen Sistema Orokorra, fou sarearen bide lerrokadura" deritzonaren lerrokadurek mugatutako zerrendaren barruan sartu dira, baina "Tokiko Sistema, udal sarearen lerrokadura" deritzonaren barruan txertatu behar dira. Era berean, berdeguneak "Tokiko Sistema, udal sarearen lerrokadura" deritzonaren barruan jaso dira, baina "Komunikazioen Sistema Orokorra, foru sarearen bide lerrokadura" deritzonaren barruan jaso beharko lirateke. Beraz, akats hori ere zuzendu beharko da.

Barruko bidetik errepideraino doan sarbidea 10 metroko biraketa erradioa izan behar du.

7. Santurdeko herrigunearen albotik doan errepide tartea ez da zeharbidea, ezta hiri barruko tartea ere. Hiri lurzoruko eta lurzoru urbanizagarriko zonakatze globalari buruzko planoetan, E11-01 izeneko zerrenda Sistema Orokor gisa sailkatu da, baina espaloiak aintzat hartzen ditu; alabaina, Arabako Errepideen Plan Integralak adierazten duen bezala, espaloiek Tokiko Sistemaren barruan egon behar dute eta, beraz, horrela irudikatu beharko dira.

Zonakatze xehatuko planoetan, errepideak eta errepidearen ondoko berdeguneek osatutako Sistema Orokorra eta espaloiek osatzen duten Tokiko Sistema bereizi behar dira, AEPIIn agertzen diren sekzioen arabera.

Lerrokadura eta sestren planoetan, espaloiak gaizki jasota daude eta zuzendu beharko dira; izan ere, "Komunikazioen Sistema Orokorra, foru sarearen bide lerrokadura" deritzonaren lerrokadurek mugatutako zerrendaren barruan sartu dira, baina "Tokiko Sistema, udal sarearen lerrokadura" deritzonaren barruan txertatu behar dira. Era berean, berdeguneak "Tokiko Sistema, udal sarearen lerrokadura" deritzonaren barruan jaso dira, baina "Komunikazioen Sistema Orokorra, foru sarearen bide lerrokadura" deritzonaren barruan jaso beharko lirateke. Beraz, akats hori ere zuzendu beharko da.

A-3124 errepidearen eta A-4147 errepidearen arteko bidegurutzearen gunean, lerrokadurak katastroaren mugarekiko paraleloan zehaztu dira, ez errepidearen ardatzarekiko paraleloan. Beraz, horiek zuzendu beharko dira errepidearen ardatzarekiko paraleloan ezarritako distantziak aintzat hartuta.

A-3124 errepidearen iparraldean, A-4147 errepidearekiko bidegurutzetik eskuinalderantz dagoen eraikuntza, hots, erortzeko zorian dagoen lastategia, antolamendutik kanpo utzi behar da, errepidearen ardatzarekiko paraleloan ezarritako distantziak zuzendu eta gero.

8. Berantevillako hirigunean, Komunikazioen Sistema Orokorra zehaztu behar da, zonakatze xehatuko planoetan nahiz lerrokadura eta sestretan, egungo A-3122 errepideari dagokionez.

9. Lacorzanillako herrigunean, lurzoru urbanizagarrian, jabari publiko, zortasun eta afektazio aldea adierazi behar da, A-2120 errepidetik eta eraikitze lerrotik abiatuta.

A-2120 errepidearekin lotzeko bidegurutzea zehaztu beharko da lurzoru urbanizagarriko sektore berria aintzat hartuta, 1997ko abenduaren 16ko Ministerioaren Aginduak, Estatuko errepide eta zerbitzubideetarako sarbidea eta zerbitzu instalazioen eraikuntza arautzen duenak, xedatzen duenari jarraiki, eta horren diseinua Arabako Foru Aldundiko Errepideen Zerbitzuarekin adostu beharko da.

10. Ondoan aipatzen diren auzo errepideetan, bide horien tarteen desfektazioa eskatu beharko da behean adierazitako kilometro puntuen artean, halako eran, non errepidearen amaiera eta hiri lurzoruaren hasiera bat datozen.

- Tobera A-4147; K. P. 38+560 eta K. P. 38+530
- Lacervilla A-4105; K. P. 28+870 eta K. P. 28+720
- Escanzana A-4156; K. P. 32+555 eta K. P. 32+680

Hamahirugarrena. Historia, Arkitektura eta Arkeologia Interesa duten Ondasunen eta Espazio Publikoen Katalogoari dagokionez.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako txostenean adierazten denez, 4/2000 Dekretuari buruzko aipua kendu beharko dira, indargabetuta dagoelako, eta Donejakue Bidea Monumentu Multzoaren izaerako Kultur Ondasun izendatzen duen urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren aipamenak jaso beharko dira.

Hamalauugarrena. Jasangarritasun Ekonomikoari buruzko Memoria edo Txostena.

Estatuko Lurzoruaren Legearen Testu Bateratua onesten duen ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretuaren 15.4 artikulua agintzen duenez, jasangarritasun ekonomikoari buruzko memoria edo txostena derrigorrez aurkeztu behar da. Txosten horretan, zenbatetsi behar da gauzatu-tako jarduerak herri ogasunetan izango duten eragina, beharrezko azpiegiturak abian jarri eta mantentzearen zioz, eratorritako zerbitzuak ematearen zioz eta ekoizpen erabileretan baliatzen den lurzoria nahikotu eta egokitzearen zioz.

Nahitaez aurkeztu beharreko agiria da, Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketaz bestekoa; hortaz, Berantevillako HAPOn inguruko agiri teknikoari arestian aipatutako Jasangarritasun ekonomikoari buruzko txostena erantsi beharko zaio.

Hamabosgarrena. Alegazioei dagokienez.

Agiriaren hasierako onarpena erabaki ondoren, 19 alegazio aurkeztu dira. Idazketa taldeak alegazioei buruzko txostena egin zuen, eta Berantevillako Udalak, 2010eko urtarrilaren 10eko bilkuran, aurkeztutako alegazioak onartu eta baztertu egin zituen, idazketa taldeak egindako proposamenarekin bat etorritz.

Alegazioak eta idazketa taldeak egindako txostena aztertu ondoren, ondoko azalpenak eman behar dira:

Felisa Ruiz Martínezen alegazioa

870 zenbakidun lurzatiak Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 11.1.a) artikulua xedatutako eskakizun guztiak betetzen ditu hiri lurzoru gisa sailkatzeko, eraikina izateaz gain, hiri zerbitzu guztiez hornituta baitago. Hiri lurzoruaren arazko izaerari erreparatuta, zilegi da aipatutako lurzatiak lurzoru mota horren barruan sailkatzea.

Álvaro Díaz de Junguitu Montoyaren alegazioa

URA, Euskal Uraren Agentziaren txostenean adierazten den uholde arriskuko lerroak eragiten die 250 zenbakidun eta 869 zenbakidun lurzatiei. Berantevillako BE.10 eremua arrazoi horretatik desklassifikatu beharko denez, aipatutako bi lurzatiek indarreko sailkapena izango dute berriro, hau da, lurzoru urbanizaezina.

Salvador Alonso Díaz de Sarralderen alegazioa

Berantevillako finkatu gabeko hiri lurzoruaren barruan, BE.07 jardun eremuan, sailkatu den 849 zenbakidun lurzatiak ez ditu betetzen Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 11.1.a) artikulua xedatutako eskakizunak hiri lurzoru gisa sailkatzeko, ez eta eremua osatzen duten gainerako lursailek ere. Horregatik, lurzati horrek izan beharko du Berantevillako Udalak

testu bateratuaren agirian BE.07 eremuari esleitzen dion sailkapen berdina, hau da, lurzoru urbanizagarria edo urbanizaezina.

Milagros Duque Vallejoren alegazioa

243 zenbakidun lurzatiak ez ditu hiri lurzoru gisa sailkatzeko eskakizunak betetzen; beraz, Berantevillako Udalak lurzati sartuta dagoeneko egikaritze unitatearen inguruan hartzen duen erabakiak zehaztuko du lurzatiaren behin betiko sailkapena, hau da lurzoru urbanizagarria edo lurzoru urbanizaezina.

862 zenbakidun eta 863 zenbakidun lurzatiek bai betetzen dituzte hiri lurzoru gisa sailkatzeko eskakizunak, bai eta 413 zenbakidun eta 860 zenbakidun lurzatiek ere. Lurzati horiek hiri lurzoruko BE.08 eta BE.07 eremuetan sartu dira, baina, orokorrean hartuta, lurzati guztiei ezin zaie lurzoru mota horren sailkapena eman. Hori dela eta, Berantevillako Udalak ezarri beharko du aipatutako lurzati sailkapena antolamendu xehatuaren testu bateratuan.

Horregatik, dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Berantevillako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espedientea behin betiko onartzea, honako aldaketa hauek eginda:

1. Uholde arriskua dela eta, BE.05, BE.011, BE.12, BE.13 eremuei hiri lurzoruko sailkapena kendu eta lurzoru urbanizaezintzat sailkatzea.
2. Agirian adieraztea LZ.04 eremuaren gutxieneko distantzia Zadorra ibaiaren ibilgutik abiatuta 35 metrokoa izango dela eraikuntza berrientzat eta 20 metrokoa urbanizazioentzat.
3. MI.01, MI.04 eta MI.05 eremuen araudiari dagokionez, uholde arriskuari aurre egiteko ezinbesteko justifikazio kartografikoa jasotzea, indarrean dagoen EAEko Ibai eta Erreken Antolamendurako LAPen ezarrita dagoen berariazko araudia zuzen aplikatzeko helburuz. Era berean, MI.04 eremuak 15 metroko distantzia gorde beharko du Riorrojo ibaiaren ibilgutik eraikuntza berriei dagokienez eta 5 metroko distantzia urbanizazioari dagokionez.
4. Lacorzanillan proposatutako Hondakin Uren Araztegiari dagokionez, azpiegitura 100 urteko itzulera denborako uhaldia zedarrizten duen lerroraino atzeratu beharko dela adieraztea.
5. Agirian adieraztea saneamendu sareek bereizleak izan behar dutela.
6. Lurzoru urbanizaezinari buruzko araudian adieraztea Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 31. artikulua xedatutakoa bete behar dela.
7. HAPOn araudian jasotzea Arabako Lurralde Historikoko hiru ibilbide berde badaudela.
8. Antolamendu xehatuko eremuak berriro zehaztea zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren oinarri jarraiki.
9. P3 eta P4 planoak zuzentzea, proposatu den egiturazko antolamendu berriaren arabera.
10. Plan Orokorrak era xehatuan antolatu dituen finkatu gabeko hiri lurzoruko eremuak zuzentzea eta, hala badagokio, osatzea, eredu araudian esleitutako subzonifikazio bakoitzari dagozkion hirigintza eta eraikuntza parametroak betetzeko helburuz, hala nola, lurzatiaren aurrealdea, berdeguneak, bideak... Era berean, 862 eta 863, 413 eta 860 lurzati antolamendu xehatua egitea, hiri lurzoru gisa sailkatzeko eskakizunak betetzen baitituzte, hamabosgarren oinarrian ezarritakoari jarraiki.
11. P6 kudeaketa planoak eragindako eremuetako lurzoruen sailkapen berrira egokitzea.
12. Araudiaren 1.6.1.6 eta 1.6.1.7 artikulua osatzea, hamaikagarren oinarrian esandakoari jarraiki.

13. Dokumentazio grafikoa eta araudia osatu eta zuzentzea, Arabako Foru Aldundiko errepi-deen afektazioei dagokienez, hamabigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

14. 4/2000 Dekretuari buruzko aipua kentzea, eta Donejakue Bidea Monumentu Multzoaren izaerako Kultur Ondasun izendatzen duen urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren aipamenak jasotzea.

15. Bideragarritasun Ekonomiko eta Finantzarioari buruzko Azterketa osatzea, hamargarren oinarrian esandakoari jarraiki.

16. Jasagarritasun Ekonomikoari buruzko Txostena erantsi, hamalagarren oinarrian zehazten den eran.

17. Agirian zuzentzea hamabosgarren oinarrian ageri diren alegazioei dagokiena.

Bigarrena. Lehenengo xedapenean adierazitako aldaketak ez dira funtsezkoak; beraz, horiek zuzendu ondoren, espedientea Arabako Foru Aldundian aurkeztuko da, haren ahalmen betearazlea aitortu, izapideak bideratu eta argitara dadin.

Hirugarrena. Behin betiko onarpena etetea ondoko eremu hauetan:

A) BE.07, BE.08 (862 eta 863, 413 eta 860 lurzatiak izan ezik), BE.10, LC.03, LC.04, LC.08 eta LC.09, SF03, SA.02, SA.03 eta SA.04 eta SA.05 eremuetako hiri lurzoruei sailkapen hori kenduko zaie eta urbanizagarritzat edo urbanizaezintzat sailkatuko dira. Nolanahi ere, aurreko oinarrietan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

B) Lacorzanillako LZ.04 eta LZ.05 industriako lurzoru urbanizagarriari sailkapen hori kenduko zaio edo berriro zedarrituko da, honako Foru Agindu honetan azaldutako arrazoiagatik.

C) Lacorzanillako HUAri dagokionez, Sistema Orokorren eremua berriro zehaztu beharko da edo, bestela, azpiegitura lekuz aldatu.

Laugarrena. hirugarren xedapenean adierazitako aldaketak funtsezkoak dira eta, beraz, honako agiri hau jendaurreko informaziopean jarri beharko da, aipatutako xedapenari dagokionez, Foru Aldundi honetan berriro aurkeztu baino lehen, behin betiko onarpena erabaki, haren ahalmen betearazlea aitortu, izapideak bideratu eta argitaratzeko helburuz.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Seigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortu du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako aretoan; horretarako bi hileko epealdia egongo da ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera.

Gasteiz, 2014ko abuztuaren 4a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko Diputatua
MARTA RUIZ CERRILLO